



A K T A

Udalbatza eratzeko bilkura

EGUNA: 2007ko ekainaren 16a

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 12:00 **AMAIERA-ORDUA:** 12:20

BERTARATUAK:

BERTARATUTAKO ZINEGOTZI HAUTATUAK

EAJ-PNV talde politikoa

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova
Solaberrieta eta Ainhoa Leunda San Sebastian

EAE-ANV talde politikoa

M. Carmen Velasco Garro, Jose M. Goiburu Mancisidor eta Leire Zinkunegi
Lopez de Gereño

Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizio politikoa

Oier Sarobe Escudero eta Iñaki Koldo Iturain Azpiroz

EA talde politikoa

Eugenio Cotado Iturain

PSE-EE/PSOE talde politikoa

Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

Ibai Lertxundi Iribar



Esan-eginak

Behin-behineko idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du bilkuraren xedea Udalbatzarra eratzea dela, honako lege arauetan xedatutakoaren arabera: ekainaren 19ko 5/1985 lege organikoa, Hauteskunde Erregimen Orokorra ezartzen duena (eta ondoko lege organikoek aldatu dutena: apirilaren 2ko 1/1987, martxoaren 13ko 8/1991, azaroaren 2ko 6/1992, martxoaren 30eko 13/1994, martxoaren 23ko 3/1995, maiatzaren 30eko 1/1997 eta ekainaren 15eko 3/1998) eta Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Araudia, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutakoa.

Aipatutako lege arauen arabera, bilkuraren aztergai zerrenda honako hau da:

- 1.- Udalbatza eratzea.
- 2.- Alkatea aukeratzea eta alkatearen kargu hartzea, hala badagokio.

Behin-behineko idazkariak bilkurari hasiera eman ondoren, ekainaren 19ko 5/1985 lege organikoaren 195.2 artikulua dioenari jarraituz, Adin Mahaia osatzen da, honela eratuta geratzen dena:

— Mahaiburua: Eugenio Cotado Iturain, 1955/10/10ean jaioa, zinegotzi hautatu zaharrena.

— Leire Zinkunegi Lopez de Gereño, 1981/12/18an jaioa, zinegotzi hautatu gazteena.

— Idazkaria: Ibai Lertxundi Iribar, bilkura honetako behin-behineko idazkari ere badena.

Adin Mahaiko idazkariak zinegotzi hautatu guztien kredentzialak irakurtzen ditu eta baita eskualdeko hauteskunde batzordeak udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, kredentzialak eta ziurtagiriak bat datozela frogatzeko. Mahaia agiriak aztertzen ditu eta bat datozela egiaztatzen du.

1.- UDALBATZA ERATZEA.

Segidan, zinegotziek, hauteskunde legeak ezartzen duen formula erabiliz, zin egin edo agindu dute zintzo beteko dituztela beren karguari dagozkion obligazioak.

Horrenbestez, zinegotzi guztien gehiengo osoa bilkuran dagoela, Adin Mahaiko buruak formalki eratutzat jo du Udalbatza.



Jarraian, idazkariak kutzako kontaketa agiria, Udalak dirutan nahiz baloretan dituen balioen ziurtagiriak eta ondarearen inbentarioa aurkeztu dizkio Udalbatzari, zinegotziek azter dezaten. Inork ez du ezer esan gaiari buruz.

Idazkariak jakinarazten dio Udalbatzarrari zinegotzi hautatu guztiak egin dutela dagokien aitortzea izan litezkeen bateraezintasun arrazoiei buruz, diru sarrerak sortzen dizkien —edo sor diezazkiekeen— edozein jarduerari buruz eta beren ondasunei buruz.

Idazkariak dio aitorten horiek inskribatu direla dagokien erregistroetan.

2.- ALKATEA AUKERATZEA.

Ekainaren 19ko 5/1985 lege organikoaren 196. artikuluari jarraituz, behin-behineko idazkariak adierazten du udalbatza eratzeko den bilkura berean aukeratu behar dela alkatea, lege xedapen horretan zehazten den prozeduraren arabera, eta gogorarazten du zein diren alkatea aukeratzeko baldintzak:

- Zinegotzi diren zerrendaburu guztiak dira hautagai.
- Zinegotzi hautatu guztiak dira hautesle.
- Aukeraketa txartel sekretu bidez egingo da, bozketa bakarrean.
- Botoen legezko gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia izango da hautatua; beraz, gutxienez, 6 boto lortu beharko dira.
- Inork ez badu bozketa honetan gehiengo absolutua lortzen, automatikoki aldarrikatuko da alkate boto kopururik handiena lortu duen zerrendako burua. Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez erabakiko da.

Ondoren, gaiari buruz Udalean dauden aurrekinetan oinarrituz, alkategai izendatzen dira ondoko zinegotzi hautatuak:

- Jon Redondo Lertxundi, EAJ-PNV alderdiko zerrendaburua.
- M. Carmen Velasco Garro, EAE-ANV alderdiko zerrendaburua.
- Oier Sarobe Escudero, Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioko zerrendaburua.
- Eugenio Cotado Iturain, EA alderdiko zerrendaburua.
- Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa jauna, PSE-EE (PSOE) alderdiko zerrendaburua.



Behin-behineko idazkariak txartela ematen dio, zurian, hautesle bakoitzari, adieraziz bertan jarri behar dituela alkate izateko botoa ematen dion zinegotziaren izen-deiturak, eta txartela doblatuta entregatzeko.

Behin txartel guztiak jaso ondoren, botoen kontaketa egiten da eta behin-behineko idazkariak ozen irakurtzen ditu alkate izateko txartel bakoitzean proposatu den zinegotziaren izen-deiturak. Emaitza honako hau da:

- Jon Redondo Lertxundi, 4 boto.
- M. Carmen Velasco Garro, 3 boto.
- Oier Sarobe Escudero, 2 boto.
- Eugenio Cotado Iturain, boto bat.
- Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa, boto bat.

Idazkariak bertan daudenei txartel guztiak eta egindako eragiketa aritmetikoa egiaztatzeko aukera ematen die. Ondoren, txartelak puskatu egiten dira.

Bozketaren emaitza ikusita, Jon Redondo Lertxundi zinegotzi hautagaia aldarrikatzen da Udal honetako alkate, bera delako herrian boto gehien lortu dituen zerrendako burua

Jarraian, Jon Redondo Lertxundi zinegotzi hautatuak adierazten du onartu egiten duela Udaleko alkate kargua eta, hauteskunde legeriak ezarritako formularen arabera promesa egin ondoren, karguaren jabetza hartzen du Udalbatzarraren aurrean. Kargua edukitzeak barnean hartzen ditu indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiak.

Horrenbestez, alkate-presidenteak Udalbatza eratzeko bilkurari amaiera ematen dio, bertaratu diren guztiei eskerrak emanez, eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA**IDAZKARIA,**